



GOMENDIOAK: DENBORALEAK



Gomendatzen dugu Euskalmet web-gunearen bidez <http://www.euskalmet.euskadi.eus> eta Twitter bidez (@Euskalmet eta @112_SOSDeiak) eguneratzen diren iragarpenak jarraitzea.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren aholkuak denboraleak gertatzen direnerako, ondorio txarrik ez egoteko, edo ahalik eta gehien murrizteko:

HERRITARRENTZAKO GOMENDIOAK:

Prebentzioko neurriak:

- Ez bainatu urruneko hondartzetan, behar beste ezagutzen ez dituzunetan edo zaintza eta salbamenduko zerbitzurik ez daukaten hondartzetan.
- Ezta olatu handiak edo tirain handia dagoen lekuetan ere ez.
- Urrundu olatuak lehertzen diren lekuetatik (haitz, kai-mutur, moila...).
- Ez hurbildu itsas pasealeku, kai-mutur edo itsas labarretara. Uraren indar handiak eraman egin zaitzake.
- Ez joan ibilgailuz kostako errepideetan.
- Urpekaritza egitekoa bazinen, utzi beste baterako.
- Saiatu ontzirik ez erabiltzen, eta begiratu zurea ondo amarratuta dagoen.
- Ez egin uretako kirolik, ezta inondik ere.

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

- Itsasora erortzen bazara, urrundu olatuak lehertzen diren lekutik, laguntza eskatu eta itxoin erreskatatu arte.
- Olatuek eramaten bazaituzte, lasai egon, eta ez egin igeri korrontearen kontra; kostako korronteez indarra galtzen dute tarte batzuetan.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.

UDALENTZAKO GOMENDIOAK:

Prebentzioko neurriak:

- Udaleko larrialdiko planeko ekintza-planean agertzen diren langileei abisu eman. Bestela, halako egoeretan lagungarri izan daitezkeen udalzerbitzuak aktibatu (udaltzainak, boluntario-taldeak, obra eta zerbitzuetako langileak eta abar).

- Herrian jarrita dauden aldamiu, garabi eta obrako beste elementuei kontu egin, denak ondo tinkatuta daudela ziurtatzeko.
- Tinkatu ondo hiri-altzariak, zabor-ontziak edo istripua eragin dezakeen beste edozer gauza.
- Erreparatu instalazio ez egonkor, eramangarri edo desmuntagarri (adibidez, karpak) eta ez badaude, tinkatu.
- Ziurtatu herrian ez dagoela inor kanpin egiten leku arriskutsuetan, eta aztertu herriko kanpin-instalazio guztiak.
- Ez ahaztu Udal Larrialdietako Sareko TETRA emisorea hor daukazula, SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin kontaktatzeko.

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

- Errepide edo paseoetan, bereziki, kostaldekoetan, zati arriskutsuak zaindu eta kontrolatu.
- Jakinarazi herritarrei denborale arriskua dagoela, eta azaldu zer neurri hartu behar diren arriskua prebenitzeko.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.

LARRIALDIETAKO ZERBITZUENTZAKO GOMENDIOAK:

- Kontingentzia-planean egoera hauetarako zehaztutako langileei abisu eman. Bestela, egoki iruditzen zaizkizuen laguntzaileak aktibatu.
- Moldatu eskura dauden bitartekoak, dena delako egoerari ahalik eta ondoen erantzuteko.
- Jarraipeneko mahaia edo krisi-mahaia antolatuz gero, garaiz jakinaraziko zaizue, edo lehendik aurreikusita zeudenetara dei egingo zaizue.